Zer ote?

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria 2000.urteko Otsaila 21.alea



**Soraluzeko gune historikoa**

**SAPA huelga mugagabean**

**Greba eguna ikastolan**

**Arrate markak hausten**

*Kanpo zorra ezabatzeko herri ekimena*

# *Atsedenik ez Inauteririk gabe*

GOL S.A. industriak

TORNILERIA-ESTANPAZIOA

ETA EXTRUSIOA HOTZEAN

Tfnoa. 943752100
Telex 38665GOL-E

20590 SORALUZE

# Aurkibidia


EDITORIALA 1.Orrialdea

GUTUNAK 2.Orrialdea

**Zutabea:** *"Gure berbetia"* Mikel Santiago

KALE INKESTA 3.Orrialdea

**Galdera:**Ze irizten dotxazu, isunak jartziari

GIZARTEA 4.Orrialdea

**Soraluzeko gune historikoa**

**Kanpo zorra ezabatzeko herri ekimena**

KALE KANTALIAN 6.Orrialdea

*Pedro Manuel Etxaberekin berbetan.*

GAZTE TXOKO 7.Orrialdea

ZER BERRI

AMODIO GUTUNEN LEHIAKETA 12.Orrialdea

KULTURA 14.Orrialdea

*Antzerkia: Izugarrizko arrakasta*

*Ikastolako greba eguna*

*Sara Nievas, puntaren puntan*

SUKALDARITZA 17.Orrialdea

*Barazki salteatuak fideoekin*
*eta*
*Tiramisu*

KIROLA 18.Orrialdea

**Zigor Gallastegi:** *Mendi garbiketa*

GURE SORGINA 19.Orrialdea

Lepo minak


Zeinek esango zozkun oin dala urte batzuk, Plaentxia moruko herri batetik, geixen bat pelota kontuetan nabarmendu dan herri batetik, atletismo inguruko gazte jende bikaina urtengo zanik? Hor dauzkau kross eta maratoietan fin ibiltzen dian gazte kuadrila bat eta zelan ahaztu hilan 13an (suerte txarran topiko guztiak apurtuaz) Arrate Azkonak ein zeban papel edarra Donostiako Anoetan! Zorioneko dogu herrixa deporte kontuetan ba (deporte batzuetan bahintzat…).

Hainbeste rekor eta hainbeste gauzakin buruan gabizela, ostera, konturatu barik, etorri dia atzera be sufritzeko bi aste eta ez dot pasau dan examina denporiagaitxik esaten, ez, ez; entzun bihar izango doguzen berbaro guztiengatitxik dinot, elekziñuegaitxik! Batek hau esaten dabela eta bestiak hango haura, zegaitxik ez ete ditxu San Balentinen fletxiak kruzau danak ados ipintzeko…

Ez dao eta esan biharrik be, Korte Ingles moruko dendak eta holakuak akordau eraitxen dozkuen eguna nahiko tristia be badala. Ze zentzu daka ba bestela urte osuan albuan dakazun personiari egun bakar batian maitxe dozula esan eta erregalua eitxiak? Benetan bateronbat maitxe bada, urteko egun guztietan eitxen da, ala ez?

Karnabalak be badatozela eta batzuk bestiak baino geixao baina hasi da jentia disfrazak prestatzen. Ia ba aurten bertakua pixkat apreziau eta herrixan bertan anbientia sortzeko kapaz garan (kanpora juatẹn ibili barik…)

**Telegrapak:** Sagar Errekako obra politto gelditzen ari da, autobus parada eta informazio makiltxo eta guzti (laranja hoiek). **STOP**. Txarrena da zubiko informazio makiltxoak enbidiaz jota daudela, aspalditxo bait daude jadanik autobus zerbitzuen papelen faltan… **STOP**. Kontuz zepo eta izunekin! **STOP**. Formalak izan eta hurrengo alerarte!


**Argitaratzailea:** *Pil pilean kultur elkartea. Frontoia 5b.* **Lan taldea:** *Egoitz Unamuno, Inaki Alberdi eta Eduardo Pombar, Gurutze Ariznabarreta,Egoitz Unamuno. Amaia Agirre, Aitziber Gantxegi, Jose Ramon Gomez, Elene Alberdi, Pedro Deza, Ubane Madera, Bittor Trebiño, Oier Oregi ,Gorka Prieto, Aitor Madrid, Xuban Katalan. eta Sabin Mendizabal.* **Publizitatea:** *Inaki Alberdi eta Elene Alberdi. (943751304 tel.)* **Banaketa:** *Pil Pilean.* **Tirada:** *1700 ale.* **Inprimategia:** *Gertu Koop.*



Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian esanen eta iritzien erantzunkizunik.





## GURE BERBETIA



Mikel Santiago

Oraindala gutxi egunakari batian hau esaten zeban gure bailarako kazetari batek, berandako euskera batuan idaztia naturala dala, baina ez batuaz berba egittia eta jatorrizko berbetiakin berriz, naturala egitten jakola erabiltzia baina ez idaztia. Ez ete dago bixak batzeko modurik?

Euskeraz alfabetatzeko aukeria euki digunok batuaz alfabetatu gara. Baina euskera batuaren alde egotiak ez dauka zertan esan bihar euskalkixen eta jatorrizko hizkeren aurka egon biha danik. Sarrittan pena haundixa emon izan dosta jende nausixari eurak euskeraz berbetan pasau baldin badabe? Oreka bat topatzia da kontua. Nik argi dakat Plaentxian euskeria biziko bada, bertako euskeria izango dala, hori dalako geure arteko hartu emonetan erabiltzen doguna. Hori ezin dogu alde batera laga, gehixau esango nuke, ahalik eta ahaleginik haundixenak egin bihako gendukez geure jatorrizko berbetiari eusteko.

Lan honetan, hezkuntzak paper garrantzitsua bat jokatu bihako leuke. Umiak ikastolako lehenengo urtietan ,euskera batua ikastiakin batera bertako euskeria be landuko balebe, berbeta aberatsago baten jabe egingo litzakez. Geure hikari bultzada bat emon bihako jako, bizkaierazko hika bizirik dakagu hemen eta politta izatiaz gaiera, hika berba egittiak emoten daben gertutasuna ez dau ezek ordezkatzen.

Idatzittako euskeria da, lanik haundixena emongo doskuna, ganoraz egin nahi badigu behintzat. Herri mailan batzuetan geure hizkeria idatziz erabiltzia interesgarrixa litzake, nahiz eta hasiera baten gaitza izan:. Horretarako tresnak badaukaguz, aldizkari hau berau eta aurreko alian azaltzen zan Koldo Zuazoren liburua esate baterako.

*"Sarriago entzun beharko lirateke euskalkiak komunikabideetan, lekukotasuna unibertsaltasuna bihurtuz"* esan zeban Jasone Osoro idazliak egunkari batian. Ia datozen urtietan hori egitteko gauza garan, bestien hizkeretatik ahalik eta gehixen ikasi, eta ibilixan ibilixan geuriari eutsi.

# ARRATE GERO ETA GORAGO.

***Brontzezko domina Espainiako txapelketan.***

Arrate Azkona soraluzetar gazteak aho zabalik utzi zuen Anoetara hurbildu zen ikuslegoa joan zen hilaren 13an. Espainiako txapelketan, altura jauzian hirugarren gelditu zen estatu mailako beste "izar" askoren gainetik, gainera kadete mailako errekorra birrindu zuen, berez oraindik nagusien artean hirugarren gelditu arren, 15 urte besterik ez ditu eta. Badu bai progresio gehiagorako astia oraindik. 1,80 metrotako jauziaz aurreko errekorra (1,76 m) gainditzeaz gain, denboraldiko hirugarren marka absoluto onena lortu zuelarik, Anoetan bere aurretik gelditu ziren Marta Mendia eta Ruth Beitiarenak direlarik beste bi markak.



Arrateren emaitzak ordea ez dira bi egunetako lana. Oso txikitatik, afizioz ekindako kirolean, gogor saiatu den atleta dugu. Horrela, iaz kadete mailan Espainiako salto hirukoitzeko proban txapeldun izan zen, hor ere errekor berria ezarriz.

ARRANO-TABERNA
SORALUZE
MARTXA eta BORROKA

Benito
Anaiak
Altzariak
Santa Ana 26 tfnoa: 943752047

# ZER IRIZTEN DOTXAZU KOTXIERI ISUNAK JARTZIARI?



ELENA FERNANDEZ
26 URTE SALTZAILEA

Ondo aparkatzia danori kostatzen jaku, horregaittik kotxe bat gaizki aparkauta dauanian isuna jartzia ez jata gaizki pentsatzen. Danok nahi izaten dogu kotxia etxe azpixan eukitzia eta ezin izaten da. Gainera gaizki aparkauta darenian jende nagusixari traba eitten jako.



JUAN ENRIQUE USOBIAGA
40 URTE LANGILEA

Soraluzen ez dao aparkaleku nahikorik, orduan ez littuke ipini biharko hainbeste isun, udaltzainak berak be hemenguak dia eta badakixe dauan arazua. Nere ustez euki biharko zeben "manga ancha" pixkat.



MARI MAR DEZA
36 URTE HARAKINA

Kotxiak espaloian aparkatuta badare, eta ez badabe pasatzen lagatzen, oso ondo iruditzen jata isuna jartzia. Soraluzeko espaloietan ez dira kotxiak eta pertsonak danak batera sartzen, beraz gertatzen dana da, zu ume txikixen kotxe batekin bazoiaz errepidera jeitsi bihar dozula. Halako kasuetan ondo ikusten dot.



MARISA SANTOME
39 URTE ILEAPAINTZAILEA

Espaloian aparkatzeko ohittura haundixa daukagu eta nere ustez espaloia jendea pasatzeko da. Gainera, nahiz eta distantzi haundirik ez egon, beti nahi izaten dogu kotxia etxe azpixan aparkatuta eukitzea eta erosotasunagaittik espaloira jotzen dogu.Azkenian lortzen doguna espaloietan pibotiak jarri behirra egotia bertan ez aparkatzeko.



MIKEL GARCIA
21 URTE LANGABETUA

Kotxia gaizki aparkauta badago ondo ikusten dot isuna jartzia, baina herrixan hainbeste kotxe badare udaletxiak zeozer pentsau bihako dau, aparkaleku gehixau edo nahi dana. Nere ustez isunak jartzia ondo dago aparkaleku nahikua dauan bitxartian.



SANTIAGO GARCIA
66 URTE JUBILATUA

Nere ustez Soraluzen ez dago aparkaleku nahikorik eta horregaittik bi kasu bereiztu biharko genittuzke; batetik kotxiak gaizki aparkauta baina traba egin bare darenian, eta orduan ez dot uste isunik merezi dabenik, eta bestetik gaizki aparkau eta gainera traban darenian, kasu hauetan isuna jartzea bidezkoa ikusten dot.

ATXOLIN TABERNA

Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Tlfnoa: 943752131

SORALUZE



JATETXEA
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

# GUNE HISTORIKOAREN IKERKETA SOZIOURBANISTIKOA ABIAN

*Gure udala DEBEGESArekin ( Deba Beheko Berrikuntza Elkartea ) batera, herriko gune historikoaren ikerketa soziourbanistikoa egiteari ekin diote. Gune hau herriaren bihotzean dauden hainbat kalek osatzen dute, eta bere balio historikoarengatik aztertzea erabaki da.*

Guztiok ezagutzen ditugu Donostia eta Bilboko alde zaharrak, hainbat kalek osaturiko guneak dira eta bere ezaugarriengatik, hots, balio historiko, garrantzi ekonomiko eta abarrengatik, izendatzen dira horrela. Eta gure herriak ere txikia izan arren, badu bere "aldetxo zaharra" eta baita historikoa ere, alajaina ! eta hau ez da ez ahuntzaren gauerdiko eztula ez horixe, edozein herrik edo hirik ez baitu gune historikorik. Ez da oso urruti joan behar adibide bat aurkitzeko. Gure auzokide diren eibartarrek, ez daukate ez alde zaharrik ez eta gune historikorik ere, galdu egin dutelako. Beraz herrian dugun altxor hau babestea eta bultzatzea biziki gomendagarria litzateke, galdu nahi ez badugu.

*"Frontoi kalean pilota partiduak jokatzen ziren XVIII. mendean"*

Gure herriko "kasko" historikoa herriaren erdi erdian kokatzen da. Eta hurrenez hurren honako kale hauek osatzen dituzte: Kalebarren kaleak, bere osotasunean, Plaza Barrixak ere bai osorik, Santa Ana kaleak, gaztetxe paretik garai bateko kale honetan egon zen okindegia baino zerbait aurreraxeraino, Frontoi kalea, Soraluze zinema eta ikastolako egoitza zaharrak ( lehengo eskola nazionalak ) barne, eraberritzen ari den herriko eliza, Elizburu kalea, Estazino kaleko zortzigarren ataria dagoen etxebizitzak eta Etxaburueta kalea, kale hau eta Estazino kalea batzen dituen eskaleretaraino.

Egiten ari den ikerketa honek alde historikoa hainbat alorretan aztertzea dakar, urbanistikoki, kulturalki, historikoki, ekonomikoki... guzti hau bere egoera jakiteko helburuarekin. Eta honela, diagnostikoa jakinda, irtenbideak eman herriko bizitza kalitatea hobetzeko. Debegesak bailarako beste herri batzuetako alde zaharretan egin duen legez, Mutriku, Deba, Elgoibar kasu, gurean ere betebehar honi ekin dio udalarekin batera. Inkestak egin ditu etxebizitzen egoera zein den ezagutu asmoz eta eraikuntza bakoitzeko pisu bat aztertu, bizilekuak zein egoeratan dauden ikusteko. Guzti honekin eraikuntzen estudioa egin gura da, zenbaitzuetako planorik ere ez baitago. Eta estudioa egin ostean, egin daitezkeen hobekuntzak zehaztu. Egitasmo hau burutu dadin erraztasunak ematea, oso komenigarria litzateke, bertan bizi diren plaentxiarrentzat ezezik, guztion onerako izango baita .


*Herriko gune historikoaren planoa*

ALAITZ TABERNA
EZOZI ETORBIDEA
TFNOA: 943751190
SORALUZE

LAKUESTA OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTAK
IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK
ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU
SANTA ANA 22
TEL: 943753059
20590 SORALUZE
(GIPUZKOA)



Santa Ana kaleko arkuaren mende hasierako argazkia

**Gune historikoaren zenbait bitxikeri**

Urteak joan eta urteak etorri, kale hauek makina bat aldaketa jasan behar izan dituzte. Santa Ana kalea esaterako, izen bereko monastegi bat zegoen 22A ataritik 22C atariraino eta beste garai batzuetan *"Kalegoen"* izenez ezaguna izan bazen ere mende honetatik aurrera monastegiko izena hartu zuen. Bertan zegoen arkupetik pasiadan herriko festetan uztailaren 26an zezena ibiltzen zen, hortik abesti herrikoiaren pasartea *"Zezena dator arkupetik sua dario adarretatik jea jea Santa Ana kaletik "*. Elizburu kalea orain eskalerez josia, San Andres auzora joateko bide bakarra zen, Etxaburueta kaletik auzo horretarako bidea egin zen arte. Frontoi kalean pilota partiduak jokatzen ziren XVIII. mendean hortik bere izena. Gure herriaren zezenarekiko zaletasuna ezaguna da horren adierazgarri XVIII. mendeko ezagunak diren grabatuak ditugu, Plaza Zaharrean eginiko zezenketak azaltzen baitira.

Herriko kale historiko hauek ez dute izan beti gaur dituzten deiturak, frankismoak iraun zituen urteetan erregimenarekin lotura estua zutenak zituzten. Elizburu kaleari adibidez *"22 de Septiembre"* deitzen zioten, bertatik 1936. urtean Frankoren tropak handik jaitsi zirelako guda zibil garaian. Kalebarren *"Martires de Arrate"* izenarekin ezaguna zen, nazionalak ( frankistak ) herrian sartu aurretik bertan hildako lagunen omenez. Plaza Zaharra *"Plaza de Navarra"* omen zen. Plaza Barrixa *"Plaza del Tercio de Montejurra"*, hogeita hamaseiko irailean rekete nafarrak nazionalekin batera bereganatu baitzuten herria. Diktadura amaieran guztiek bere jatorrizko izenak bereganatu zituzten.

**Iturria :** *Soraluze-Placencia de las Armas Monogafia Histórica. Ramiro Larranaga*

***© Aitor Madrid***

# KANPO ZORRRA EZABATZEKO KONTSULTA HERRIKOIA

***Kanpo zorraren aboliziorako sare herritiarrak kanpo zorra eta beronek garapen eta txirotasunarekiko dituen ondorioez eztabaida soziala eta hausnarketa egiteko instrumentu izan nahi du. Lehen urrats modura, martxoaren 12ko hauteskundeekin batera izango den kontsulta antolatu dute, 16 urtetik gorako edonork, etorkinak barne (paperekin edo gabe), bere iritzia eman ahal izango duelarik gai honi buruz.***

***Zer da kontsuta herrikoia ?***

Gizarte zibil, erakunde sozial eta bertan parte hartu nahi duten hiritarrek bultzatutako proposamena da. Hiritarrak kanpo zorraren zergatia eta ondorioez jakinean egon daitezela nahi du eta eman dezatela bere iritzia martxoaren 12ko hauteskunde orokorrekin batera izango den kontsulta herrikoian. Hautesleku "ofizialetik" gertu jarriko dira "mahaiak", eta hiritar bakoitzak ondoko galdera hauek dituzten botu paperak izango dituzte eskuragarri :

***1.***Gobernu espainiarrak herrialde txirotuen kanpo zorra ezabatzearen alde al zaude ?

***2.***Hegoaldeko herrialdeek zorrari dagokion diru kopurua bere biztanleen giza garapenerako proiektuetan erabiltzearen alde al zaude ?

***3.***Mailegatutako diruez Ipar eta Hegoaldeko boteretsuek egin dituzten legez kanpoko aberasteak ikertzearen eta kopuru horiek dagokien herriei itzutzearen alde al zaude ?

***Zer da kanpo zorra ?***

Hegoaldeako herrialdeek Iparraldekoei, nazioarteko finantza erakundeei edo eta nazioarteko banketxe komertzialei zor dieten dirua da, gobernuek jasotako maileguek edo gizarteratutako mailegu pribatuaek eragindakoa.

1995.ean, hegoaldeak Iparraldeari, zorraren ordainetan, 257.800 miloi dolar igorri zizkion, Iparraldeak garapenerako Laguntza Ofizialetan erabiltzen duena baino bost aldiz gehiago. Afrikak, osasunean eta heziketan darabilena baino lau aldiz gehiago igortzen dio Iparraldeari.

Hegoaldeko herrialdeek, interesetan, zordundutako dirua baino askoz ere kopuru handiagoa ordaindu diete Iprraldeko herrialdeei. Iparraldeko herrialdeek, kopurua zor diete hegoaldekoei zor historiko eta ekologiko kontzeptuan.

***Ondorioak***

Planetako herrialderik txiroenetan, populazioak gero eta baliabide gutxiago ditu bizitzeko. Herrialdeek zorra ordaintzen heziketan, osasunean eta gizarte zerbitzuetan baino diru gehiago erabiltzen dute. Herrialdeek burujabetasuna galdu eta Nazioarteko Moneta Fondoak eta Banku mundialak hartzen dituzte erabakiak. Herrialdeek garapen aukera guztiak galtzen dituzte eta txirotasunak populazioaren zatirik handiena xurgatzen du. Gora egiten dute emigrazioa, gerrate eta suntsipen ekologikoak.

*Informazio gehiago lortu nahi duenearentzat ondokoa da kontaktu helbidea Terrific School of English. Telefonoa* ***943 75 13 32***

***Lan taldea.***

# "Ez dot ahaztuko errekia izoztuta ikusi neban eguna"



*Kalera urten dot plaen txiarren batekin berriketan eittera. Hemendik aurrera hilean behin kalian egongo naiz bateron bat harrapatzeko desiatzen. Hara! hortxe dao bat ... banoia alde ein baino lehen..berba ein nahi izengo ete dau nerekin?*

**Eguerdion! Pil pilean aldiz...**

Et, et, et, neri holakorik ez! *(besoa altxatu eta ihesixari emon dotsa)*

*(...lelenguak kale, bigarrenak beste horrenbeste...ia honek ...bai honetxek erantzungo dotsez galderoi...)*

**Aurkezpentxo bat eingo doskuzu?**

Pedro Manuel Etxabe, 63 urte, plaentxiarra, plaentxian jaioa eta bizi.

**Noiz pasau dozu lotsarik haundiña?**

Jeseuuuuuus, ez daukan goguan.

*(noizian behin begiratu eta barre eitten dau itxuria grazia eitten dotsa elkarrizketiak...)*

**Laster karnabalak datozela eta disfrazauko zara?**

Ez, ez, ez , ni ez.Baina giro ederra egoten da eta ein bihar dan gauza bat dala uste dot, pozgarrixa da bai umiendako eta baitta nausixendako be.

**Gizurtxuak.**

Ni ez naiz gizurtixa, egixa esatia gustatzen jata, gainera esaten dabe lenao harrapatzen dala gizurtixa kojua baino..., baina txiki txikixak badia ba... dabilena jausi eitten da.

**Ze falta jako herrixari?**

Bueno... inportantiena pertsonen erlaziñua da, materixal aldetik eta tekniko aldetik ba poliki poliki eitten dia gauzak.

**Ez jata ahaztuko sekula...**

Errekia izoztuta ikusi neban eguna eta Olan igarixan ibiltzen ginan sasoia.

**Biluztuko al ziñake sekula 100 miloiren truke?**

Ja, ja,ja..horrek, gauza horrek egunian bertan pentzau bihar dia ,oin ezin esan.

**Aipagarrixa da...**

Ezoziko Ama abesbatzak eitten daben lana eta sakrifiziua, zenbat ordu, zenbat sakrifizio...benetan aipagarrixa da eta herrixak askotan ez dau jakitzen zelako gauzak eitten dittugun, Orain gutxi Donostiako emanaldixa eta beste gauza asko ta asko.

*(ez dotsat eskatuko kantatzia,horretarako ematen dittuen emanaldixetara joan biharko gara)*

**Demaseko tontokerixia da ...**

Jardutia, barriketan larregi eittia.

*(...gure artekuagaitxik esango ete dau?, auskalo! ... bukatzen joan biharko naiz erlojuari begira dao ta...)*

**Beno eta bukatzeko kontauko doskuzu anekdotaren bat...**

Bai! Mutikua nitzala, 4 , 5 urte ez jata ahaztuko sekula... Hor ikusten dozu autobus paradia ba hor lehen errekarako bidia zeuan .Egun batian hor zebitzen lagun batzuk txalupekin demasak eitten ta ni be haretxeri begira beste askon moduan. Jendez beteta zeuan ingurua ta orduan pasau zan... nere atzekuak zeoze ikusi nahixan bultza ein zoztan eta uretara jausi nitzan. Etara niñuen zela edo hala gero hor ibili zian danak tripia igurtzten barruko ura botatzeko... orduan justu justuan librau nitzan bai ...hau egi egixa da , e?

*(...Eskerrak orduan izan zen gaur egun izan ezkero ederrak komerixak hortik etaratzen!..., nok salto ein?...)*

***Guru***

MENDIZABAL OKINDEGIA



Kalebarren, 10 -Tlf: 943752091
Balteaieta, 6 -Tlf: 943751399

Kontulan Aholkularitza, S.L.

Santa Ana, 13 1.ezk.
Tlfnoa: 943751782
20590 Soraluze

# Inauteriak

Aurten inauteriak martxoaren 7an ospatuko dira Soraluzen. Inauteriak ez dira beti egun berean izaten, Aste Santuaren arabera izaten dira. Egun horretan jende guztia mozorrotu egiten da eta gauean mozorro dantzak egoten dira.

Orain dela urte asko berriz, aratosteak ospatzea debekatuta zegoen, hala eta guztiz Tolosan ospatzen jarraitu zuten, horregatik dira hain famatuak. Orain berriz jai hau ia mundu osoan ospatzen da.

Jai hauetan ondo pasatzen da eta oso dibertigarria da gainera jende guztia mozorrotuta egoten bait da. Tabernetan dena apaintzen dute eta udaletxekoek lehiaketak eta talderen bat musika jotzeko ekartzen du.



Aurten martxoaren 2tik 7ra izango dira eta kalean ospatzeaz gain guk ikastetxean ere ospatuko ditugu.

Eskolan egun batzuk lehenago hasten gara dena prestatzen, baina ez pentsatu hain erreza dela.... gauza asko prestatu behar dira: jantziak, dantzak....

Lehenengo kurtso guztiak elkartu eta denok jarri behar izaten gara ados zer jantzi erabakitzeko. Batzuk gauza bat nahi izaten dute eta besteek beste bat Denbora asko egoten gara erabakitzeko eta azkenean botazioarekin bukatzen dugu.

Mozorroarekin ados jarri ondoren musika eta dantzak prestatu behar dira. Dantza denon artean asmatzen dugu, entsaiatu ondo irten arte, eta prest gaude jaialdirako. Gehienetan Takolo, Pirritx eta Porrotxen abestiak hartzen ditugu errazak direlako dantzatzeko, bestela zailak balira batzuk nahastu egingo lirateke.

Festa ostegun arratsaldean ospatzen dugu eskolaurretik seigarren maila arte. Egun horretan jantzi, margotu eta prestaketa guztien ondoren irteten gara jolastokira gela , edo ziklo bakoitza, pertsonai batez mozorrotuta: pirata, goxoki, jipi, superman, pinotxo, amaona zaharra, Robin Hood, Batman, Spiderman, Superman .... gero argazkiak ateratzen dizkigute eta oso dotore ateratzen gara. Talde bakoitzak bere dantza dantzatzen du denen aurrean. Bukatzen dugunean berriz txokolate bero-beroa egoten da.

Mozorro jantziak gure gurasoek eginikoak izaten dira baina batzutan erosi egiten ditugu edota utzitakoak izaten dira.

Eskolaz aparte ludotekan ere plastikozko mozorroak egiten dira eta gero kaletik zehar kalejiran ibiltzen gara.

Kalean ere ospatzen da, asteartean. Bertan desfilea egoten da eta kaletik ibili ondoren buru handien aurretik korrika ibiltzen gara. Gauean berriz, Plaza Zaharrean, jaialdi bat egoten da. Jendea, taldeka, eszenatokian dantza egiten du eta gero sariak banatzen dira irabazleen artean. Ondoren dantza egiten dugu guztiok.

Oso egun alaiak dira denentzat. Aurten zertaz mozorrotuko gara?

## Matematikako maisua

Triiiiiiiiiii ¡!!!!!!! Gelako txirrina da. Ni Alberto naiz eta egun batean gertatu zitzaigun gauza bat kontatuko dizut.

*-Kontuz! Irakaslea dator!*

Denok eserita esan zuen Miguel Angelek.

*-Beno, egun on! Matematikako liburua 27. orrialdean zabaldu.*

Irakasle hau, oso gogorra zen.

Egun batean, gelan, nik bakarrik, ahots bat entzun nuen:

*- Kaixo, kaixo!*

*- Zein zara ?* Esan nuen nik.

*-Non zaude?*

*-Hemen .* Esan zuen berak.

Arbeleko borradorea zen. Ni harrituta gelditu nintzen. Orduan nire lagunei deitu nien.

*-Etorri. Etorri   Borradorea bizirik dago!*

Nire lagunak, ni bezala, gelditu ziren, harrituta.

Eta nik esan nion borragailuari:

*-Begira, ni Alberto naiz, hau Miguel, hau Mikel, hau Ines....*

Eta berak esan zuen:

*-Ni "Borra" naiz, hau tiza, hau arbela...*

*-Alberto, irakasleak min egiten dit, esan iezaiozu polikiago har nazala.*

*-Bale, egingo dut, orduan.*

Eta Albertok maisua etorri zenean:

*-Maisu!   Borradoreari mina egiten diozu!*

*-Beno, ez esan txorakeririk.* Esan zuen maisuak.

*-Bai. Egia da, mina ematen didazu!* Adierazi zuen "Borrak".

Harrituta, gure maisua zorabiatu egin zen eta ospitalera eraman genuen.

Maisua ospitaletik etortzerakoan, oso ondo konpontzen zen Borrarekin, oso lagun onak egin ziren.

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA
Industrialdea, z/g
138 Postakutxa
tf: 943752150
Faxa: 943752118
SORALUZE

PASCUAL CHURRUCA S.A.
Tornilleria estanpada
Errekalde 21
telef. 943751600 eta 943751604
Faxa 943 752461
20590 SORALUZE

## UDAL BATZARRAK 2.000. URTERAKO AURREKONTUAK ONARTU ZITUEN. 816 MILIOI BAINO GEHIAGOKO AURREKONTUAK

Joan zen otsailaren 7 an Udal Batzarrak egindako biltzarrean, 2.000 .urterako aurrekontua onartu zen. Alberto Sudupe alkateak, inbertsioen atala azpimarratu zuen *" behar beharrezkoak baitira ekonomia eta giza arloetan Soraluze aurrerakoi bat lortzeko."*

E.H. ko alkateordea den Ezozi Larrañagak ere, oraindik gauza asko egiteko daudela nabarmendu bazuen ere, azken sei hilabete hauetan egindakoa positibotzat jo zuen. Bere hitzetan *" Egoera politikoa, elkarlana eta kolaborazioa herriaren onerako izan da."*

Hona Udalaren Aurrekontu orokorra osatzen duten gastuen eta sarreren zenbatekoa:

**SARREREN AURREKONTUA**

*1 Zuzeneko zergak* ———— - 77.900.777
*2 Zeharkako zergak*———— - 10.000.000
*3 Tasa eta bestelako sarrerak* 65.337. 563
*4 Transferentzia arruntak*—288.193.317
*5 Ondare Sarrerak*————-3.000.000
*6 Inbertsio errealen inorenganatzea*—-
*7 Kapital Transferentziak*—76.000.000
*8 Finantza Aktiboak* ——— ————-
*9 Finantza Pasiboak* ——— 296.039.969

**SARRERAK GUZTIRA** 816.471.626

**GASTUEN AURREKONTUA**

*1 Langileriaren gastuak* ————————152.768.939--152.768.939
*2 Ond. arrunten eta zerbitzu gastuak*—-158.462.864 .864
*3 Finantza gastuak* ——————————-9.600.143---9.600.143
*4 Transferentzia arruntak*———————-74.249.3084.249.308
*6 Inbertsio Errealak* ————————389.885.818 --389.885.818
*7 Kapital Transferentziak* ———— ————- ------------
*8 Finantza aktiboak* ———————- ————- -----------
*9 Finantza Pasiboak* ——————— 31.504.554
(5 . puntuaren zenbatekoaren berririk ez dugu)

**GASTUAK GUZTIRA** 816.471.626

## GAS NATURALA JARTZEKO LANAK HASI DIRA

Joan zen hilean hasita eta beste sei bat hilabetetan zehar, herrian gas naturala jartzeko beharrezkoak diren lanak egingo dituzte. Lanek, Ezozi Etorbideko 32. zenbakian hasi eta Santa Ana kaleko 26. zenbakian izango dute amaiera. Honen arira, alkateak, lan hauek sortu diezazkieten eragozpenegatik barkamena eskatu die auzokide guztiei.

## SAGAR ERREKAN 23 URTEKO GAZTE BAT HIL ZEN ISTRIPUZ

Joan den hilaren 23 an, domeka egunez, Fernando Yanguas 23 urteko Soraluzetar gaztea hil zen arratsaldeko 18:30 ak inguruan motorrarekin istripu bat izan eta gero.

## TXERNOBILKO UMEAK ETXEAN HARTZEKO DEIA

Txernobil Elkarteak urtero egiten duen bezela, aurten ere familien laguntza eskatzen dihardu Txernobilko katrastrofe nuklearraren eragina jasan zuten ume bat edo gehiago etxean hartzeko. Umeak datorren uztailean eta abuztuan egongo dira Euskal Herrian. Egon seguru egonaldi horrek beren osasuna hobetzeaz gainera, etxean hartzen dituzten familikoen bihotzak pozteko ere balioko duela. Beraz badakizue animatu eta hartu ume bat etxean, bion honerako izango da eta. Umeren bat etxean hartzeko asmoa duzuen denok, Txernobil Elkartearekin harremanetan jar zaitezkete 670 41 90 78 telefonora deituz ( astelen eta eguenetan 19:00 retatik 21:00 rak bitartean deituta) edo bestela elkarte honek Agirre Lehendakaria Etorbideko 42. zenbakian dagoen, Bilboko Udaleko, 1. barrutiko zentroko 2. solairuko elkarteen gelan duen egoitzara ere joan zaitezkete ( martitzen eta barikuetan 18:30 etatik 20:30 ak bitartean).



*Joan diren urteetan ere izan dira Txernobilko neska-mutikoak gure herriko familietan.*

ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO ETA KONPONETAK, ETXEKOAK ZEIN INDUSTRIALAK. ATEZAIN AUTOMATIKOAK. BERO AKUMULAGAILUAK GAU TARIFARAKO.

GANTXEGI
ELEKTRIZITATEA

Errekalde, 2 104 p.k. Telf: 943751959 Soraluze

Etxabe harategia
Euskal txahalkia - Bildotsa
Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tlfnoa: 943752375

### INAXIO DE MIGUEL SORALUZETARRAK, GIPUZKOAKO MERKATARITZA GANBARAK EMANDAKO DIPLOMA JASO DU.

Inaxio De Migel "Itsasoi" egurlangile ezagunak, urte luzetan egurra lantzen egin duen eta egiten diharduen lan bikainagaitik, Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak Diploma bat eman dio, joan den otsailaren 11 an.

Inaxiok txiki txikitatik zetorkion egurrareriko afizioa, ofizio bihurtu zuen. Lan asko egin ditu han eta hemen, eta horietatik asko dira baita, balio artistiko haundia gordetzen baino erakusten dutenak. Aipagarria da, 1.973 an gaur egun Espainiako errege erregina bezala dauden, orduko printze eta printzesari eman zitzaien, berak egindako idi eta baserritarraren egurrezko eskultura. Herrian 1.983 berrizten amaitu zuen gure Santa Maria De La Real elizaren ataria ere, Inaxiok egindako lanik garrantzitsuenetariko iz°°°°°°°ango da dudarik gabe , eta baita herriak gehien eskertu eta maitatzen duenetariko bat ere. Herrriko elizaz gainera asko izan dira urteetan zehar Euskal Herrian eraberritu dituen balio haundiko egur eraikinak, tartean Bergarako Agarreko horreoa, Lesakako eleiz ataria, Arteako San Migel eleiza, eta abar luze bat. Merkataritza Ganbarak egur langintzaren ofizoan egindako lan mamitsua eskertu nahi izan dio diploma honekin. Langintza zaharrei eusten saiatu eta kalitate haundiz eusten dioten beste lau eskulangileri ere eman zieten diploma bana.



*Inaxio egurra lantzen.*

Ondo merezita daukazu eta zorionak Inaxio! Segi horrelaxe gure herri eta elizetako egurrak berriztu eta edertzen !




*Argazkian Inaxio De Miguel ( eskuinetik hasita 2.a), diploma bana jaso zuten gainontzeko lau eskulangile, eta diploma eman zien Ganbarako zuzendariarekin batera.*

### KARAKATEKO ANTENAREN AURKAKO ERASOA.

Joan den hilean, Karakateko antenari eraso zioten. Erasotzaileek kable batzuk moztu eta erre zituzten, eta ondorioz Elgoibarren esaterako, ia egun osoan izan ziren telebista ikusi ezinik.



*Erasotzaileek kableen su eman eta erabat erre egin zituzten.*

### SORALUZEKO BATERAK KONZENTRAZIOAK EGITEN JARRAITZEN DU

Euskal Presoak Euskal Herriratzearen alde sortutako Batera plataformak, konzentrazioak egiten jarraitu du urtarrilean eta hil hontan zehar. Batera plataforma, Gobernuak Presoek beren zigorra Euskal Herrian betetzeko duten eskubidea errespetatua izan dadin eta bide batez, Espainiar Gobernuak behingoz bere legedia bete dezan, eskatzen ari da behin da berriz.

### E.T.A. REN ATENTATUAREN AURKAKO KONZENTRAZIOA

Joan den hilean E.T.A. k Madrilen egindako atentatua ezagutu eta gero, konzentrazioa egin zen Plaza Berrian. Gesto por la Paz talde bakezaleak deitutako konzentrazioarekin, bertan bildu ziren herritarrek , atentatua gaitzetsi nahi izan zuten.

**Egoitz Unamuno**






Erretegi
Jatetxea
ESOZIA

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

## ELIZA BETE-BETE SAN BLAS EGUNEAN

Pasatako urteetan bezala asko izan dira aurten ere, Otsailaren 3 an San Blas egunean, opilak bedeinkatzera elizara hurbildu direnak. Hamaiketako mezan, eliza betebete egin zen eta pentsatzekoa zen moduan bertan ziren ume ugarien zalapartak, zenbait unetan abadearen hitzak entzutea galerazi zuen. Hala ere jendeak bere opilak jaso eta gustora bedeinkatu zituen eta urte guztian eztarriko minik ez izateko esperantzarekin eraman zituen etxera.



*Umeak ilusio handiz joan ziren bedeinkapenera, bakoitza bere opila hartuta.*



*Bakoitza bere opil eta umeak hartuta, guraso asko ( gehientsuenak amak) joan ziren elizara.*

## KALEAN ETA BASERRIETAN KANTU KANTARI SANTA AGEDA BEZPERAN

Otsailaren 4 an izan zen Santa Ageda bezpera. Urtero bezela Euskal Herriko herri asko eta askotan ohitura den moduan, Plaentxian ere atera ziren kale eta baserrietara Santa Eskean. Kalean Musika Eskolako ikasleak ibili ziren iluntzi partean kantari. Baserrietan berriz, jai eguna zela eta, hilaren 5 ean jardun zuten bi taldek eskean, baina bananduta; bata soinujole, panderojole eta koplari eta guztiko 12 laguneko taldea zen (klasikoak) eta bestea berriz soinujole , panderojole eta txistularidun, 3 laguneko taldea (gazteri berria). Ia datorren urtean, oraindik eta jende gehiago ateratzen den kantura !

## SEBASTIAO SALGADOREN TERRA ARGAZKI LANA IZAN ZEN IKUSGAI

Udaleko Kultura eta Gazteria Batzordeak antolatuta, Sebastiao Salgadoren *"Terra"* lanaren erakusketa izan zen ikusgai polikiroldegian otsailaren 11 tik 18 ra. Argazkilari kataluniarrak, egunero egunero lurrari etekina atera nahian diarduten milloika gizon emakumeen bizimodua erakusten du lan honetan, argazkien bidez; lur jabeekin dituzten gatazka, hirietarako emigrazioa etab. bezalako arazoak islatuz. Sebastian Salgadok, Sem Terra Mugimenduari emandako argazkiak dira hauek, ondoren Medicus Mundik erosi zituen, eta honek, *"lehen mundua"* deritzon hontako jendea, beste *"mundu"* batzuetako egoeraz jabetu dadin darabiltza herriz herri.

## HERRIKO 16 KORRIKALARIK JUANTXORI DESAFIOA BERAK BAINO BIZKORRAGO 10 KILOMETROKO BIDEA EGIN BAIETZ.

16 Laguneko talde batek Juan Alberdi plaentxiar korrikalari ospetsuari desafioa bota dio, zeinek 10 kilometroko bidea antxitxika bizkorrago egin. 16 korrikalari horiek, txandantxandan antxitxika eginaz Juani erraz irabazteko gai direla uste dute. Ostera, 16 mutileko talde horretan daudenak ikusita eta azken orduko fitxaje sorpresarik ez badago behintzat , Pil Pileaneko gehienok (eta beste askok ) uste dugu Juanek oso posibilitate handiak dituela irabazteko. Kontuak kontu, laster, martxoaren amaiera aldera seguruena, Plaentxian herri kirol zale eta apostuzale guztiok zita haundi bat izango dugu. Bitartean egin zuen apostu klandestinoak eta gero ikusiko dugu zeinek irabazten duen. Pil Pileanek desafio honen gaineko xehetasun guztiak jakinaraziko dizkizue hurrengo alean. Zorte on mutilak!

## GALINDOK SORALUZEKO UDALEKO TELEFONOTIK DEITU OMEN ZUEN

Lasa eta Zabalaren hilketak argitzeko Madriden egiten ari den epaiketan, zenbait testiguk, Galindok Soraluzeko udaltzaingoaren telefonotik dei eginda jakin zuela Lasa eta Zabalaren bahiketaren berri, esan dute. Soraluzeko bi udaltzain izan dira Madriden. Esan dutenaren arabera garai haietan nahiko ohizkoa zen Guardia Zibilak udaltzaingoaren telefonotik deitzea. Galindo generala orduan gaur bezain ezaguna ez zenez eta ordutik hona urte asko pasa direnez, zaila egiten zaie gogoratzea baina ba omen du udaltzainetako batek gau hartan guardia zibil burusoil bat etorri zenaren akordua.



*Kalez kale kantari jardun eta gero, Plaza Berrian kontzertua eskeini zuten neska mutikoak.*

*Ezkontzen gehigarria*

…eta kitto!, drogetenitturri, goibekokale eta Pil-pilean aldizkarien

# EZKONTZEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibar, Elgeta, Ermua eta Soraluzeko aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun EZKONTZEN GEHIGARRIA. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia eta Soraluzen banatuko dugu ale berezi hau.

11.000 ale kaleratuko dira, 28.000 irakurle ingururendako.

3. zenbakia 2000ko udaberriko gehigarria

PUBLIZITATEA: *Mertxe Agirre.* DISEINUA ETA MAKETAZIOA: *Koldo Mitxelena Zumaran.* TESTUAK: *Silbia Hernandez.*

Tirada: 11.000 ale. Tel. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 67 76



FOTO-VIDEO ZAPPING

# Jantzi egokia aukeratzearen garrantzia…

Aukeratzen den ezkontza motak garrantzi handia izango du senargaien jantzia zein izango den aukeratzeko orduan, batez ere emaztegaiaren kasuan. Ezkontza zibiletan oso aukera zabala dago: soineko mota guztietatik hasi eta trajeetatik igarota, hamaika aukera daude forma, kolore eta ehunetan.

Elizaz ezkontzean, ordea, oraindik ere tradizioa da nagusi: lehenengo ezkontza bada, emaztegaiak soineko luzea eramango du, zuria edo krema kolorekoa gehienetan. Lehenago ezkonduta egon bada, soineko motzarekin ezkonduko da emaztegaia.

Soinekoa probatzera joateko orduan, ezkontza egunean eramango den barruko erropa eta zapata berak eramatea gomendatzen dute: zapatak aurretik erabili behar dira, ezkontza egunean minik ez egiteko. Eskoteak ez du handia izan behar, dotoreagoak direlako eskote txikiak. Beloa eramaten bada, soinekoaren luzeera bera izan dezake edo laburragoa.

Gizonaren kasuan, tradizioari begiratuta, txakea gomendatzen dute protokoloan adituak direnak: korbata grisa, txaleko grisa edo beltza eta zapatak ere beltzak, kordoiekin eta apaingarririk gabe. Trajea nahiago izanez gero, dotereena kolore iluna da: gris iluna edo beltza. Oso ohikoa ez bada ere, batzuk smoking-a aukeratzen dute; kasu horretan, korbata jantzi beharrean pajarita da aproposena. Edozein kasutan ere, mokasin erako zapatak *debekatuta* daude ezkontza egunerako.

Trajea berriz erabili behar bada merezi du erosteak, baina askok alokatu egiten dute. Bataz beste 20.000 pezetan lortu daiteke traje itxuroso bat.



JULEN ARGAZKIDENDA

SASTRERIA AZPIRI



✂ Arriagan izandako arrakasta eta gero, Azpirik Udaberri eta Udako traje kolekzio berria aurkezten dizu.
✂ Diseinu berriak
✂ Marka berriak
✂ Preziorik onenak
✂ Sastreria Azpirik larruzko erropak, frakak, sport-a, alkondarak... dena erakusten dizu esposizio berrian

Etorri zaitez!

Arragueta 3
EIBAR

Telefonoa
943 20 74 17

Erakusketa-lekua laster zabalik: Arikitxa 1




Edozein motako ospakizunetara
ondo jantzita joateko: ezkontzak,
jaunartzeak, bataioak... bisitatu...
Gutiërrez
JOSTUNDEGIA
Zubiaurre 30. ERMUA
Tel. 943 17 01 80


Valenciaga
Zuloagatarren 1
Tel. 943 20 22 33
EIBAR
Senargaiak
eta ezkontzako
gonbidatuak
jantzeko
prestatuta
gaude

# Barruko erropa ere zaindu behar da



Barruko erroparen kasuan ere, gizonezkoek buruhauste txikiagoa dute. Emakumeen kasuan, berriz, aukera gero eta zabalagoa da. Eramango den soinekoaren araberako barruko erropa eramango da. Koloreetan hamaika aukera badago ere, oraindik ere zuria da erabiliena. Izan ere, kasu gehienetan soinekoa kolore berekoa izaten da.

Soinekoak eskote zabala badauka, horri egokitutako barruko erropa jantzi beharko da: garrantzitsuena emaztegaiaren figura liraintzea da eta, horrekin batera, ez da bat ere dotorea gelditzen soinekoak ez badu barruko erropa estaltzen.

Bestalde, gaur egunean figurari nahi zaion forma ematen laguntzen duen barruko erropa ugari dago. Bularraldea igotzeko eta bolumen gehiago emateko bularralde bereziak daude. Wonderbra famatua eta gero, azken berritasuna silikonako bularretakoa da: betiko erreilenoa alde batera laga eta silikonaz bete dituzte bularretako batzuk, bolumena handitzeko. Gorputzari ezinhobeto egokitzen den materiala denez, oso modu naturalean apaintzen du.

Kontrako efektua lortzen duten bularretakoak ere badaude, eta gaur egun ez dira sasoi batekoak bezain zurrunak: jende gaztearendako oso egokiak diren forma eta koloreak egiten dira orain.














Irritsa
Ezkontza-egunean
ezin hobeto
jantzita egoten
lagunduko dizugu
Arragueta 9
Tel. 943 12 71 06
20600 EIBAR


Bidebarrieta 62
Tel. 943 12 70 21
20600 EIBAR
Jantzirik
dotoreenak
zuretzako!
DOROTI


ARRIETA
Gizon eta
emakumeendako
erropak
T. Etxebarria 14
943 20 69 29
Errebal 22
943 20 20 24
EIBAR

# Ondo dagoena, beti ondo…

Protokoloa, nahiz eta batzuen iritziz zaharkituta egon, oraindik ere jarraitu beharreko zerbait moduan ikusten dute beste askok. Edozein modutan ere, jarraian aipatzen ditugun hauek dira protokolo tradizionalak agintzen dituen jokatzeko moduak.



Senargaia beti iritsiko da elizara emaztegaia baino lehenago. Emaztegaia aitabitxiaren besoari helduta sartuko da eta, beloa badarama, aurpegia horrekin estaliko du. Gonbidatuak aldez aurretik elizan jarrita itxarongo dute.

Behin eraztunak eta arrak elkartrukatu eta gero, elizatik irtetzen lehengoak ezkonberriak izango dira. Gonbidatuak euren atzetik irtengo dira elizatik.

Automobilean nola jarri behar den ere argitzen du protokoloak: ezkondu baino lehenago, emaztegaia atzeko jarlekuan joango da, eskubian jarrita. Haren aldamenean, ezkerreko jarlekuan, aitabitxia jarriko da. Baina, behin ezkondu eta gero, senar-emazteak elkarrekin jarriko dira atzeko aldean; aitabitxiak lehenago erabilitako tokian jarriko da senarra.

Protokoloarekin batera, inoiz aldatzen ez den beste zerbait ere badago: siniskeriak. Gai baten inguruan sineskeriarik badago, gai hori ezkontzena da. Betidanik esan da ezkontza ondo irtetzeko ezin dela martitzenean ospatu. Horren arrazoia historian bilatu behar dugu: Astrologiari begiratuta, asteko egun horretan Marte da nagusi, erromatarren gerraren jainkoa; historiari begiratuta, borroka garrantzitsuak galdu ziren martitzenetan eta horregatik ez da oso gomendagarria martitzenetan ezkontzea. Dena dela, gaur egun gehienetan zapatuan ezkontzen da jendea. Orduari dagokionez, eliza batean ezkontza bat baino gehiago egiten denean egun berean, lehenengo ezkontzen den bikoteak besteak baino zorte hobea izango du.

Zerbait berria, lagatako zerbait eta kolore urdineko beste zerbait eraman behar omen da: lagatakoak, biderkatzen diren gauzak adierazten ditu; berriak, lorpen eta objetiboak eta urdinak, berriz, emaztegaiari zerutik gertu egoten lagunduko dio.






**fasprint**
Inprimategia
**Ezkontza Gonbidapenak**
txartelak, gutunak, albaranak,
fakturak, papergintza orokorra...
Tel./Faxa: 943 20 16 13 - Ego Gain, z/g - EIBAR

URKOLAN
COMERCIALS.L.
EZKONTZETARAKO GONBIDAPENAK
LEHENENGO JAUNARTZEKO GONBIDAPENAK
-ESKATU KATALOGOA-
Bidebarrieta 46, behea - 20600 EIBAR
311 postakutxa - Tel. 943 20 86 12 - Faxa. 943 20 88 23



**DISEINU BERRIAK ETA ORIGINALAK**

- Urre zuria eta horia
- Platinoa
- Diamanteak
- Perla kultibatuak
- Perla australiarrak
- Tahitiko perla grisak

- Erlojuetan:
  Mathey Tissot (18 (kte)
  GUESS
  Alfex
  Up to you
  Paco Rabanne (berria)

dirdai
Julian Etxeberria 18, behea 943 20 64 07

K
Goi mailako bitxiak
Diseinuak - Erlojutegia
Opariak - Grabatuak
karcaga
Bidebarrieta 10 Tel 943 20 80 45 EIBAR



antxon
DEGUSTAZIOA
- Ezkontza eta jaunartzeetarako TARTA eta OPARIAK
- Pintxoak, ogia, artisau gozotegia...
TORIBIO ETXEBARRIA 13
☎ 943 20 63 22 / 943 20 05 47



ETERNA
Erlojuaren agente ofiziala
Egurrola
Bitxitegia
Valdespina markesa 8 Tel. 943 17 04 64
48260 ERMUA



AGUIRRE
BITXITEGIA
Gizonezkoendako urrezko Viceroy erlojua
11.364 pezeta hilean
Emakumeendako urrezko Viceroy erlojua
9.091 pezeta hilean
Estaziño kalea, 10 EIBAR



Marrodán
BITXITEGIA
Toribio Etxebarria 24
Tel. 943 20 73 04
20600 EIBAR

# Ispilu, ispilutxo... zein da ederrena?



Gaur egungo gizartean edertasunak garrantzi handia badauka eguneroko bizimoduan, horrelako egun berezietan are garrantzitsuagoa da inoiz baino ederragoa izatea, batez ere emaztegaiaren kasuan.

Aldez aurretik ezkontza egunean eramango duen orrazkera eta makilaia probatuta egoten da. Egokiena, adituen ustez, makilaiaz eta orrazkeraz arduratuko direnak ezkontza egunean emaztegaiaren etxera joatea litzateke. Hala ere, praktikan oso gutxi dira horrela jokatzen dutenak. Gehienetan, ezkontza eguna baino lehenago estetika zentru batera doa emaztegaia probak egitera. Behin aukeraketa egin eta gero, egunean bertan orraztu eta margotuko dute. Orrazkeraz arduratzen direnek, ilea bezperan garbitzea gomendatzen dute.

Gainera, orrazkerak jantziarekin bat egin beharko du: nolako jantzia halako orrazkera. Bestalde, aurpegi bakoitzaren ezaugarrietara hobeto egokitzen den orrazkera zein den aukeratzeko orduan, oso lagungarria izan daiteke espezialista baten laguntza.

Makilaia, bestetik, ez da oso deigarria izan behar. Guztiz kontrakoa gomendatzen dute: ahalik eta naturalena izan behar du.

CAPI
Bidebarrieta 5 EIBAR
Tel. 943 20 15 47

- Vitro-Kal azazkalak
- Tintea eta permanentea betiletan
- Emaztegaiendako makilajea
- Solariuma
- Mikropigmentazioa
- Aurpegirako tratamenduak
- Gorputzerako tratamenduak

MASAJEAK

- Kiromasajea
- Bizkarrerako masajea
- Kirol masajea
- Reflexologia...

Hidromasajea

Bapore bainua / Turkoa


Solarium-a 10 min.


DERMOESTETIKA INTEGRATUTAKO ZENTRUA
PILAR
Estetika Mixto Berezitua
Kiromasajea, Sendagai Homeopatikoak
Zubiaurre 24, 1. esk.
48260 ERMUA
Tel. 943 17 30 66

BEHIN BETIKO DEPILAZIOA
LASER-AREKIN
Gizon eta Emakumeendako

✓ Zirugia estetikoa
✓ Liposukzioak
✓ Zimurrak
✓ Amelan mantxak
✓ Aurpegi tratamenduak
✓ Gorputzeko tratamenduak
✓ Masajeak
✓ Dantzak

ELISA
EDERGINTZA
EIBAR
Ego gain z/g
943 20 76 33


JULEN argazkilaria
Argazki eta Bideo Erreportaiak
Urkizu 3 - EIBAR
Tel 943 12 71 91


GADIFOT
ARGAZKILARITZA - BIDEOA
Iñaki Galparsoro
Komentukoa, z/g
Tel. 943 17 06 71
Ermua (Bizkaia)


Argazki estudioa
Bidebarrieta 4
Tel. 943 20 27 16
20600 EIBAR


FELIPE LOIOLA
ARGAZKILARIA
Juan Gisasola 10, behea
Tel. 943 12 72 44
20600 Eibar


FOTO VIDEO-ZAPPING
Birjiñape 1, behea
Tel. 629 446 606


ARRATE
LORADENDA
Bidebarrieta 64
Tel. 943 20 38 32


Blanca
Tel. 943 20 88 47
Isasi 18
EIBAR


Laumar
Bidebarrieta 1
Tel. 943 20 16 26


Izadi
San Juan 1
Tel. 943 20 33 29



MARI CARMEN PARDO
Mikropigmentazioa



MARIMAR CEPEDA
(8063 Kolegiatu zkia.)



IRIDOLOGIA
Irisaren azterketa



MARGARITA ESTEBAN
(6180 Kolegiatu zkia.)

Hodei

ESTETIKA
Tel. 943 70 18 28

# ESTETIKA

Solariuma dutxarekin
Aurpegi tratamenduak
Gorputz tratamenduak
Behin betiko depilazioa
Makilajea - Ikastaroak
Permanentea eta tintea betiletan
...

# ZIRUGIA

Barizeak
Bularra
Lifting-a
Liposukzioa
Begi-poltsak
Sudurreko zirugia
Mantxa eta zimurrak
Zelulitis-a
...

# KIROMASAJEA

Iridiologia
Kirol masajea
Digitopuntura
Erreflexuterapia
Elektroterapia
Masaje terapeutikoa
Naturopatia
Eskuzko terapia
Bentosa hematikoak
Shiatsu
...

Hodei

ESTETIKA
San Juan 11, behea







RAFAEL ROMAN Irakaslea
NATUROPATA
Eskuzko terapia
FENACO 606 zenbakidun kide profesionala.





ARANTZA GOROSAB
(8066 Kolegiatu zk

## Ezkondu eta gero, bazkaria edo afaria...

# On egin!

Gure mugetatik kanpo gastronomiak ez du horrenbesteko garrantzirik izaten. Baina, Euskal Herrian behintzat, ospakizun garrantzitsuetan ez da janaririk falta. Bazkaria edo afaria izan, aukera zabala eskaintzen dute jatetxeetan.

Oso kontuan hartu behar da jatetxe askotan urte osoan jende ugari izaten dutela. Horregatik, sasoiz ibili behar da jangelan tokia hartzeko orduan. Jatetxe gehienetan aldez aurretik egindako menuak eskaintzen dituzte, prezio ezberdinetakoak. Ezkongaiek gehien atsegin dutena aukeratu eta hori izango da ezkontza egunean aterako dutena. Toki askotan probatzera ematen dituzte menuak, enkargatu baino lehen.

Edozein modutan ere, menu ohikoenetan entremesak (hotzak eta beroak), salda edo zopa, okela eta arraina sartzen dituzte. Mahaian eseri orduko, gonbidatu bakoitzak menua izaten du txarteltxo batean eta horrela badaki zer jango duen.

Eta, ondo jan eta gero, bazkaloste edo afaloste patxadatsua aukeratzen dute batzuk, digestioa ondo egiteko. Beste batzuk, ordea, nahiago izaten dute dantza piskat eginez kaloriak erretzen joatea.



ITZIAR ALBIZU















# SALEGi
## JATETXEA



250, 200, 90 ETA 30
LAGVNENDAKo
4 JANGELA

BANKETEAK ETA KARTA

KoTXE ETA
AVToBVSENDAKo
PARKiNG-A
BERTARAiNo



JANGELA BERRiA
ERAiKiTZEN
DiHARDVGV.
LASTER ZABALiK!



JARDiÑA. KoKTELERAKo
LEKV APRoPoSA

ITZIAR (Santutegiaren ondoan)
943 19 90 04
943 19 91 81

# S.A.P.A. HUELGAN

SAPAko zuzendaritzaren eta langile eta ordezkarien arteko harreman txarrek, lantegiko negoziazioek eta bestelako arazoek eragin zuten langilegoaren huelga mugagabea.Asko dira alderdi bien artean dauden arazoak esate baterako 2000. urteko otsailean gauden honetan oraindik ez dira 1999ko lantegi paktuarekin akordio batera iritsi .Zuzendaritzaren arabera 1999ko azaroan hasi ziren.,baina langileek diotenez negozioazio hauek ez ziren benetakoak izan.Izan ere jendea soberan zegoela eta konbenioarekin dagoeneko nahikoa irabazten zutela besterik ez zuten esan.

Zuzendaritzak uko egin zion hasieran negoziatzera esertzeari, honen ustetan greba deskonbokatu gabe zegoen artean negoziatzea ez baitzen legala .Presioen eraginez esertzera behartuta ikusi zuten beraien burua, baina langileen aburuz, eseri baino ez ziren egin , proposamenak ez zirelako nahiko izan.Bai Soraluze eta bai Andoaingo lantegiko komitekoek negozioazionako borondatea azaldu bazuten ere egoera eustezinak inork nahi ez zuena egitera bultzatu zituen , greba mugugabea egitera.

SAPAko langileen esanetan grebak eta aste horretarako eskaera batzuk fakturatu behar izateak eraman zuten zuzendaritza egoera aztertera ez beste ezerk.




## Lan hitzarmen justu bat eskatzeko huelga mugagabe bat abiatu dute Soraluze eta Andoaingo langileek




# MARTXOAREN 10ean ...

## DENOK SAGARDOTEGIRA

## PIL PILEANEKIN

***Sarrerak 4000 ptan Gilan salgai***

# Amodio gutunen lehiaketa

## TXAPELDUNA: *Mikel Santiago*



### IRAGANA BERRIRO ITZUL BALEDI

*Soraluzen, XX. Mendeko Udazken batean*

**Ene Sara:**

Udazkeneko lanbroak alde guztietan sorrarazi duen usainak ekarri dit zure begirada gogora. Begirakune alaia eta malenkoniatsua, itsas urdin eta zabala batzutan, behelaino goibel eta sakona bestetan. Dagoeneko paradisua berriro etor baledi ere, neguko arratsalde hotz eta goxo haiek errepika balitez, ez genuke jadanik momentu bera biziko, ene Sara.Une haien gozo-gazia hain gertatzen zait gozagarri egun, ez dakidala zein zoro haizek liluratu ote ninduen orduan zure magal horretatik ihes egiteko.Egia esan,ez dakit nire begien lausoak zer nolako gomendioak ekarri zizkidan bihotz ondora, izan ere denborak ez baitu atzera pausorik onartzen, orduan nekusakeena ez baita gaur ikusiko nukeena, eta senti nezakeen guztiari gutxi baiteritzot orain sentitzen dudana ikusita.

Bai, Sara, zure suak barruko txokorik izkutuena ere kiskaltzen didan honetan, zure arnasaren oroitze berak izerdi hotz baten antzeko hotzikaraz betetzen nau uneoro.Zuk patuari egozten zenizkion zetozkeen gauza on eta txarrak.Madarikatua bedi zugandik aldendu ninduen zoritxarreko patu hura, baldin eta hari leporatu behar badiot nire koldarkeria.Denborak ez du gure alde inoiz jokatu , gure bideak ez ziren une egokian gurutzatu eta damu dut, ez dakizu zenbateraino, Sara, orduan ausart izan eta erosotasun geldo eta gezurrezko bati uko egin ez izana.

Orain zuri natorkizu, ametsetan murgildu nahi dudan honetan, hosto beraren gainean etzanik munduan galdurik dagokeen lurralderik zoragarrieneko ibai indartsu batek eraman gaitzan, Bai, Sara, eta urjauzien hots ikaragarriak ez liguke lamien lilura kanturik entzuten utziko, eta biok izango ginateke bat, izan ere barruraino sar dakigunean maitasunaren indarra ez baitagoke beste ezer zein inorentzako lekurik.

Gaurkoan orduan esan ez nizuna agertzera natorkizu, inoiz esan ez nizuna, eta orduan sentitu arren horela zela jakin ere ez nekiena.Denbora igaro denean etorri zait zure ezpain bustietatik entzundako ele eztiek sorturiko zurrunbiloa. Sorgin haize ikaragarria, uholde bortitza eta burdin gori errea batera izango banitu legez gorputz barruan bueltaka dakilkidana eta ez didana bizitzen ere uzten. Ez daiteke berandu izan, Sara bidaiari ekiteko.Ez diezadakezu esan, barru-barruko min hau betirako eraman beharko dudanik sorbalda gainean.Ez, Sara maitea, zeren maite zaitut. Ez dut inoiz horrelako ikararik sentitu, ez horrelako beharrik ere inorekin uneoro egoteko,besarkatzeko, laztantzeko, denboraz at kokatu eta infinituaren altzoan ilargi azpian hondartza baten urertzean betirako bat izateko.

Urteak igaro dira, Sara, baina gauak dakarren misterio kutsuak, sorgindu ninduen zure izate leunak eta oraindik iluntzeoro entzuten ditudan zure maitasun hitzek betikok diraute nigan. Orain ulertu dut zergatik zinen gauaren maitale, zergatik hain zen kuttuna zuretzat biok inguratzen gintuen zigarro kearen presentzia. Bai Sara, eta orain nik ere iluntasun izan nahi dut, biok murgil gaitzakeen gau, eta bere barruan biok ke bihur bagintez ilargiraino hegan joateko, orduan ginateke benetan zoriontsu, orduan biok ginateke bat, bi zigarroren ke arrastoek bat egiten duten gisan etengabe gorantz doazen neurrian.

Ez dakit Sara alboan nor izango duzun orain. Gure tragedia izan da, elkar maite izan dugun denbora honetan guztian une ezberdinetan kanporatu izan dugula gure su itzalezin hau, baina jakin basdakit zugan ere

oraindik irazekita dirauela gar horrek, ez dakit egunaren eguzki disdiraz ala gau ilargi argiz. Bihoa neure haize putzik handiena bizi den su hori zuzper dadain eta erre bitza inguruan dagozkiokeen sasi guztiak harik eta une berean , behingoz, bat egin dezagun arte.

Sara, euria dihardu nire bihotzean urrun zauzkadalako, maite minak erotu egingo nau albora ez bazatozkit. Biharko egunsentia dakusazunean oroi zaitez nitaz, ahaztu autoen burrunba zoliak eta aditu etxe arteko txori bakartiak diotsun eresia. Orduan zuganaino jaitsiko da zorionaren jantzia eta betirako gordeko zaitu nire bihotzaren epelak.

Maite zaitut

**Ni**

# TXAPELDUNORDE: *LIERNI SANTAMARIA*



Maitasuna, gizakiari poza edo tristura era berean ekar dakiokeen sentimendu bortitza, sarritan merezi ez dutenei emana, sarritan erantzunik gabea eta beti ukaezina.

Ulertezina iruditzen zait, orain erbestean zauden hori, nire ondotik emaro itsasoko urak haitza higitzen duen gisa urruti zara joan.

Nork daki:

Agian ez zara inoiz itzuliko,agian ez zaitut berriz ferekatuko edota ez zaitut inoiz nire besoen artean edukiko.

**Dena den, lasai egon zintezke„ zure** begien disdira, zure laztan goxoak eta zurekin iragandako bedatse goiz argitsu haiek beti gogoan izango ditut Ez zaitut inoiz ahaztuko zutaz oroitzean zortean izan dudala ohartuko naiz, nik zu, nire bihotza bete duen hori sakon ezagutzeko parada izan baitut.

Itsasoak gure bihotzak banatzen baditu ere, jakin ezazu nire zureganako maitasuna itsasoa bezain zabal eta sakona dela.

**Nik** zu maitasunez zaitut oroitzen, zorionez gordetzen eta bihotzez maitatzen.

Gure arteko maitasuna tenore eta tarte luzez banatuta egon arren, ez itsasoak, ez lurrak, ez zeruak ezta ingernuak ere ez du nire maitasuna ura bezala lurrunduko ezta nire oraoimena zura bezala erre eta desagertuko.

**Nire** oinaze eta tristurak zure irudi zoli eta argiak estaliko ditu. Udazkeneko enarak joanen diren moduan joanik ere ez zaitugu gomugatuko nire inguruko ahozabalek horrela badiote ere.

Amoltsuki beti izango zara nire itzal, egonezen ere, nire malurak ez du zure arima eskaliko.Maiz nire malkoek begiak bete badituzte ere, zin dagizut aurrerantzean irribarrez oroituko zaitudala.

Ez agurrik ez adiorik, gero arte baino, badakizu nire itxaropena, esperantza eta arima·zuregan ditudala eta ozeano zabal sakona maitasun honen aurrean txiki gelditzen zaigun ur zatia dugun arren, gure hitzak motx gelditzen direla eta ni hemen Euskal Herri txiki eta garden honen erdian, zu bestaldean noiz ikusiko zain, itsasoari begira egonen naizen hau, maitasunez eta bihotzez agurtzen dela.

Bihotz-bihotzez

Besarkada bat eta laster arte

*Eskerrik beroena parte hartzaile guztiei eta bereziki Euskararen Aholku Batzordeko epaimahaikoei, Marimer Muñoa,Mikel Leunda, Lina Olaizola eta Iñaki Gerrikagoitiari, alegia.*

# Antzerki taldeak arrakasta handia lortu zuen

*"Soraluzeko Zubia"* antzerki taldeak *"Pa Morirse"* izeneko antzezlana taularatu zuen hilaren 11an 400 bat herritarren aurrean. Manolo Murillo, Eibarko Narruzko Zezen antzerki taldeko kidea zuzendari lanetan jardunez, bi zatitan taularatu zuen Soraluzeko taldeak antzezlana: El Velatorio batetik eta Los Clavos de Plata, bestetik.

Lehenengo zatiak, 50. hamarkada eskenatoki moduan erabiliz, pertsona baten heriotza kontatzen du umorea erabiliz.

Bigarren entzezlana, berriz, Irlandan kokatzen da. Gizon zeken bat eta bere emaztea eta arrebaren arteko ikamikak kontatzen ditu. Bigarren honetan ere, umorea da nagusi.

Guztira, 16 kide aritu ziren bi antzezlanak taularatzen.

Partaideetako batek, Merche Rascónek, adierazitakoaren arabera, jendea oso gustora geratu zen ikusitakoarekin. Are gehiago, antzezlana berriro ikusteko eskaera ugari ere jaso zuten.





Lan ugari hartzen du herriko antzerki taldeak mota honetako lanak taularatzeko. *"Pa Morirse"* antzezlanaren entseguak, esaterako, pasa den urteko azaroan hasi ziren. Maiatzean, zinearen teilatua erortzearekin batera, geldiunetxo bat egin ondoren, aurtengo urrian berriro ere ekin zioten gogor entsaiatzeari, azkenengo hilabeteetan, batez ere .

Honetaz gain, taldearen lana da baita ere antzezlanean erabili beharreko jantziak lortzea eta baita bestelako behar guztiak betetzea ere.

Esan beharra dago, honelakoetan, baina, Eibarko Narruzko Zezen antzerki taldearen laguntza ugari jaso ohi dutela. Kasu honetan ere, jantzi asko handik ekarritakoak izan dira. Baita eskenatokia eta argiak ere.



Duela hiru urte sortutako antzerki taldea da hau. 16 kidez osatuta, bi lan taularatu dituzte dagoeneko: *"Entretinieblas"* eta *"Pa Morirse"*.

***Ubane Madera***

## Udaberriko kontzertua

Soraluzeko Musika Eskolak, Udaberriko kontzertua antolatu du datorren martxoaren 31rako. Arratsaldeko zazpietan izango da kontzertua, parrokian. Musika Eskolan dauden instrumentu guztiek parte hartuko dute bertan: triki-tixa, saxofoia, pianoa, flauta, txistua, tronpeta, kitarra, tronboia, bibolina, soinua, klarinetea, haize taldea eta abesbatza. Era guztietako musika entzuteko aukera izango da egun horretan.

Herritar guztiak gonbidatu ditu Musika Eskolak Udaberriko kontzerturako.
Abisu moduan jakin, egun horretan entierroa egon ezkero, kontzertua arratsaldekko zortzietan izango dela.

# ESKOLA EREMUTIK ATERA AHAL IZATEKO ESKUBIDEAREN ALDE

*" Guk nahi dogu legia aldatzia gure alde egon dein"* adierazi dute ikasleek.

Soraluzeko Istitutuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek, jolasorduetan eskola eremutik ateratzeko eskubidea lortu nahian, hainbat protesta ekintza burutu dituzte hil hontan zehar. Ekintza hauetatik guztietatik deigarriena eta garrantzitsuena, otsailaren 2 an egin zuten greba eguna izan zen dudarik gabe. Ikasleek jakinerazi zigutenez, grebaren inguruan ikasleen artean egindako botazioan, 132 botutatik, 113 k baiezko botua eman zuten, 3 k ez zuten eman boturik eta 16 k grebaren aurkako botua eman zuten. Emaitza hauek ikusita ikasleek greba egitea erabaki zuten eta Greba Egun honen barruan, Plaza Berrian konzentrazioa eta sinadura bilketa ere egin zuten, lortutako sinadurak Eibarko Hezkuntza Inspekziora bidaltzeko asmoarekin.

Ikasleen iritziz, R.O.F. deritzon eskola araudian, eskola eremutik ateratzea debekatzen duen legea aldatu eta garai berrietara egokitu beharra dago. Ikasleek uste dute bigarren zikloko ikasleek, jolasorduetan jateko zerbait erostera, etxera edo beste edonora joateko baimena behar dutela eta baimen hori zor zaiela gainera. Irakasleak beren partetik, ados daude ikasleen aldarrikapenekin baina ez daude prest aukeratzen den erabakiaren ardura beren gain hartzeko. Erabakian alderik garrantzitsuena osatzen duten gurasoek berriz, legeak dioena errespetatu beharra dagoela diote, baina oso honen gainean adierazgarria da ikasleen ustetan, gurasoen artean egindako sondeoan, gurasoen % 68 ak seme alabak ateratzearen alde azaldu izana.



*Greba egin zuten ikasleek, ikasle askok gurasoen debekua zela medio ez zutela greban parte hartu,azpimarratu zuten.*

Zaila izango dela jakin arren, beste zentru batzuetan gertatu dena ikusita ikasleak esperantzatsu dira eta etorkizunean beren eskakizun eta eskubideak betetzea lortuko dutela uste dute.

**Egoitz Unamuno**

---

# *Plazentziarra Donostian*

Sara Nievas, 11 urteko plazentziatar gazteak, aurtengo Donostiako Jose Azpiazu II Kitarra Lehiaketako bigarren saria lortu du.

14 pertsona aurkeztu ziren Sara Nievas aritu zen maila berera. Bertan 10 eta 11 urteko neska mutikoek lehiatu zuten. Sararen esanetan, *"lehiaketara aurkeztu zen jendea oso prestatuta zegoen, maila altua zuten eta ez nuen irabaztea espero".* Beraz, benetan pozik dago soraluzeko neskatila, lortutako emaitzarekin.

Bi egunetan aritu zen Sara Donostian lehian. Finalera heltzeko saioa gainditu behar izan zuen aurrenik. *"Danza Dobalairo"* izeneko abesti brasildar herrikoia jo zuen kitarrarekin. Bigarren egunean, finalean, berriz, Maria Linemanen runba bat eta Forteаren txotis bat interpretatu zituen.

20.000 pezeta eta oroitgarri bat jaso zuen sari moduan.

Aurrera segitzeko indarra



Orain bost urte hasi zen Sara musika ikasten Musika Eskolan. 7 urte bete zituenean, kitarra aukeratu zuen instrumentu moduan eta orain arte jasotako emaitzak ikusita ez zuen aukera txarra egin. Berak adierazitakoaren arabera *"lehen kitarra jotzeko gainean egon behar ziren etxekoak. Orain, aldiz, gustora eta gogoz hartzen dut. Mota honetako sariek aurrera segitzeko indarra ematen dute".*

***Ubane Madera***

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
JABIER ALBERDI
HARATEGIA
Errebal kalea 24.
tlfnoa: 943751932

Argitarapen honen edizioko laguntza le:
En la edición de esta publicación colabora
kutxa
fundazioa
fundación

# DOMEKERO PELIKULA BAT ESKEINIKO DA GAZTETXEAN



Proiektorea erosi eta gero , gaztetxean domekero filme bat botatzea erabaki da. Urtarriletik ona ia astero bota dira filmeak eta oso harrera ona izan dute gaztetxera hurbiltzen den jendearen artean. Hau ikusita aurrera ere horrela jarraituko da, beharbada oskarrik irabazi ez duten filmeak botatzen baina jendeak une on bat pasatu dezan posible egiten.

Kontzertuen atalean otsailaren 19 an antolatu zena azpimarratu behar. Fox in Face, Tolosako taldeak eta X-at talde Bergararrak hara bildu zirenak gozatu zituzten, beren musikarekin. Hurrengo kontziertuari begira, otsailaren 31 rako Catoon Band-en taldearen kontzertua dago iragarrita.

# *PEDRO HERRERO* BAKARLARIAK ETA *CHEMA VILCHEZ JAZZ-FUSSION QUARTED* TALDEAK JO ZUEN GAZTELUPEAN



Pedro Herrero kantabriar bakarlariak jo zuen joan zen otsailaren 18 an Gaztelupen. Madrilen bizi den abeslari honek Joaquin Sabina eta Javier Krahek bezala " *La mandragora* " arian lan egiten du eta aipatutako bi abeslariekin ere egin ditu kolaborazioak. Musika emanaldira jende mordoxka hurbildu eta giro atsegina izan omen zen. Bestalde, otsailaren 20 an ere izan zen beste kontzertu bat eta kasu hontan, Chema Vilchez Jazz-Fussion Quartet taldeak eskeini zuen emanaldia, gaueko 9:30 etan. Emanaldi honetara ere jende mordoxka bildu zen eta ohikoa den bezala giroa oso atsegina izan zen. Aurrera begira martxoan ere kontzertuak antolatzeko asmoa daukate Gaztelupekoek baina oraindik ez daude datak zehaztuta

EDURTZA
KAFETEGIA

SAN ANDRES
ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK
TLF: 943751646
RABAL 2 SORALUZE

# IÑIGO GABILONDO

*Iñigo ez da sukaldaria ofizioz baina bai afizioz. Oso gustoko du bere kuadrilakoei afari goxoak prestatzea, eta noski, prestatutakoa ondo-ondo probatzea.*

*Berari batez ere gauza bereziak gertatzea atsegin zaio eta honen adibide moduan bi errezeta eskeinai dizkigu.*



**BARAZKI SALTEATUA FIDEOAKIN**

***Osagaiak:***

- 250 gr fideo
- Porru txorta bat
- 400 gr leka
- 200 gr txanpi
- 4 azenario
- 100 gr ganba
- 750 gr sapua (rape)

***Nola prestatu:***

Zartagin batean olioa bota eta fideoak doratu, hau ontzi batera kendu. Olio horretan bertan, tira meheetan moztu ondoren lekak,, porruak eta azenarioak potxatuko ditugu. Guztiz potxatzeko apur bat bat falta denean bota zartagin horretara txanpiak, zuritutako ganbak eta sapo zatiak. hauek ondo eginada daudenean beste ontzi batera (fideoenera) ura bota eta fideoak egosi. Fideoak egositakoan ur guztia kenduko diogu eta barazkien zartaginera botako ditugu, sutan dena nahastu eta berotuaz.

**TIRAMISU**

**Osagaiak:**

- Tarrina bat "Philadelphia"
- 200 ml nata likidoa
- 3 arraultza zuringo
- Bizkotxo pakete bat(*"Soletilla"* direlakoa)
- Kakao hautsa
- Azukrea
- Likoreren bat (norbere gustura)
- Kafea

**Nola prestatu:**

Bizkotxoak kafetan ondo busti ondoren ontzi baten azpikaldea hauekin bete ( ontzia lauki luzea bada hobe.)

Philadelphia gazta azukre goilarakada batzuekin (norbere gustora) eta likorearekin nahastu. Ondoren gaztaren ontzira nata montatua eta arraultza zuringoak elur puntuan bota, dena ondo nahastuaz krema lortu arte. Krema hau bizkotxoen gainera bota eta ondo sakabanatu. Gero kakauaz hautseztatu eta hozkailuan 12 ordutan utzi ondoren prest dago jateko.

Arandela pulituen fabrika
Standart Tipoa, Din eta Zeta
Arauak, eredu edo planoen
araberako Estanpazio lanak.

Estanpaciones LAGA s.a.

Industroaldea
telf: 943752350/1985
telefax: 943751702

42 postakutxa
20590 Soraluze

JOSETXO Ardangela

PINTXO ETA OTARTEKOETAN
ESPEZIALITATEA.

Atxuri,9 SORALUZE Tlf: 943751571

*Zigor Gallastegi Soraluzeko Mendi Taldeko kideetariko bat da eta makina bat urte daramatza lanean mendiarekin erlazionaturik dagoen edozerekin.Ugariak izan dira talde honek bultzatutako ekintzak azkenengo urteetan,eta horien artean, urtero egiten den mendi garbiketa aipa dezakegu Aurtengoa,joan zen urtarrilaren 30ean ospatu zen, nahiko arrakastarekin.*

# "Mendia gurea dela uste dugu, eta nik alderantziz dela esango nuke"

***Zein da Soraluzeko mendien egoera?***

Nahiko ona dela esango nuke; kontutan harturik toki askotara kotxez heldu daitekela, jendeak dexente errespetatzen du mendia.Honen adibide, mendi gaina da, jende asko ibiltzen da bertan eta dabilen guztiarentzako ez da zabor asko aurkitzen.

Bestalde, Untzeta aldea dago. Alde hau basatiagoa da eta pinuz josita dago. Hemen jendea perretxiku garaia denean ibiltzen da bakarrik; alde hau ere garbia dagoela esan dezakegu.

***Zabor asko jaso al zenuten? Zeintzuk antolatzen duzue ekintza hau?.***

Zerbait batzea guretzat asko dela esan daiteke; hala eta guztiz, urtetik urtera zabor gutxiago batzen da eta hau jendea kontzientziatzen ari denaren seinale da.

Ekintza hau Mendi Taldeak eta Udaletxeak antolatzen dute Eguzki taldearekin batera. Hauen laguntza beti izaten da estimagarria era hauetako ekintzetan.

***Soraluzeko mendietara igotzeko lasterbideak nola daude? Zein arduratzen da hauek garbitzeaz?***

Egoera txarrean daude; hauetako batzuk mendian egiten diren obren ondorioz, galdu egin dira eta beste batzuk berriz, ez erabiltzearen ondorioz. Lasterbide hauek (gehien erabiltzen zirenak )azkenengo aldiz, 97an garbitu ziren, helduen mendi martxa ospatu zenean. Hala ere, badago asmoa hauek berreskuratzeko; hau Udaletxearen lana izango litzateke, eta zalantzarik gabe, gure laguntza izango lukete.

***Kanpoko jende asko etortzen al da Soraluzeko mendietara?***

Inguruko jende asko hurbiltzen da, batez ere Karakate aldera; gure buzoietan txartel asko jasotzen da. Anekdota bezala esan behar dut, urtero, badagoela Bizkaiko talde bat Krabelin-aitzera etortzen dena. Talde hauetakoak, tontor hau oso gustukoa dutela esan ziguten.



***Mendia zaindu behar dugun kontzientzia har dezagun pare bat arrazoi.***

Naturaren zati garrantzitsu bat delako errespetatu beharra dago eta bestalde, zaintzen ez badugu, naturaren oreka galdu daiteke, eta honek ondorio latzak ekarriko lituzke guztiontzat.

**Bittor Trebiño**
**Iñaki Alberdi**





# LEPOKO MINAK

Gazteak ditugu oraingo honetan mintzagai. Egia da hauek osasunaren jabe izan ohi ditugula baina noiz edo noiz hauek ere lesio naiz gaixotasunen aurrean errenditu beharra izaten dute. Ohikoa dugu garai honetan, otsailaren hasieran nahiz ekain eta uztailean gazteak lo faltaz, estresaz, lepoko minez.... Ikusteia. Zergaitik garai honetan? Galdetuko du zenbaitek. Azterketa garaia dugulako, eta liburu aurrean denbora ugari pasatzen dugulako egokia ez den "postura" batean. Nahiz eta gazteak aipatu, ondoren azalduko ditudan ariketa hauek egokiak izango dira ordenagailu aurrean denbora asko pasatzen dutenentzat, josten aritzen direnentzat....

Lehenik eta behin ikusi dezagun zer gertatzen den guztiok ohizko dugun posturan. Lepoa aurreruntz botata izan ohi dugu zerbait irakurtzen ari garenean eta honen eraginez bertebra artean ditugun diskoek presio handiagoa jasaten dute, gehiago desgastatzen direlarik eta aurrera begira konplikazioak ager daitezkelarik.

Honetaz gain postura bat denbora mantentzeak kontrakturak sor ditzake muskuluetan. Ikus dezagun bada honi

*Lehenik eta behin postura egokia hartu behar dugu mahaiaren aurrean. Ordenagailuaren aurrean bagaude, begiek honen pantailaren parean egon behar dute eta teklatuak baju egon behar du sorbalda jaso beharrik ez izateko, berazpunteen aurrean ere horrela izan beharko luke, hau da mahaiak ez du sorbalda jaso beharra eragin behar.*

"Lepoko minak ez dira sortzen gehiegi ikasteagatik, postura txarrean ikasteagatik baizik."




*Komenigarria da lanean, nahiz ikasten hasi aurretik eta ondoren luzatze ariketa hauek egitea.*

*Ariketa hauek jarleku batean eserita egingo ditugu eta hauek helburua lepoa mugitu, estatika ezegokia zuzendu eta bertako muskulatura erlaxatzea izango da.*



Burua jaitxi okotzak bularrarekin bat egin arte.



Burua atzeruntz erortzen utzi.



Burua eskuinera eta ezkerrera biratu, sorbalda gainetik atzera begiratuko bagenu bezala.



Burua eskuinera eta ezkerrera erortzen utzi (biratu gabe), begirada beti aurrekaldera mantenduz.

***OHARRA:*** Hariketa hauek poliki-poliki eta minik eragin gabe egin bahar dira. Lehenengo bakoitzetik 10 errepetizio egiten hasiko gara eta gero 30 errepetiziora iritsi arte poliki-poliki igoko dugu (2astean behin 10 errepetizio igo)

***Bibliografia:*** www.infodisc.es/fbarbera/cuidepe3.htm eta www.Webdelaespalda. org /poblacion.asp

ONEGI

## ZORION AGURRAK

Bitttor Laskurain Artolazabal
79-1-5 21 urte
**Z O R I O N A K ! ! !**
*Berandu, baina zurekin ahazten ez diran lagunen partez.*

Xabier Errazu Sasieta
78-2-11 22 urte
**Z O R I O N A K ! ! !**
*Ganberro. Zure lagun "kuttunen" partetik.*

Loiola Madera Zangitu
79-1-29 21 urte
**ZORIONAK ETA ONGI PASA!!!**
*Betiko zure lagunen partez*

Asier Amezua Isasi
93-2-15 7 urte
**ZORIONAK** eta **MUXU HAUNDI BAT**

Oskar Miguel Ruiz
78-2-27 22 urte
*Zure lagunen partetik urte honetan zure desio kuttunenak beteko diralakuan*
**ZORIONAK!!!**

### KEXAK ETA TXALOAK

*Pesako ordutegiak*

*"Kaixo. Diar ein dot esatiarren ia zegaittik ez daon autobusen ordutegirik zubixan. Aspaldi ipini zittuan PESA-k, ordutegixa ipintzekuak baina ordutegirik ez. Zela jakin bihadogu ze ordutan datorren? Ez dago eskubiderik! Eskerrik asko."* Egoitz Unamuno. 00-2-10 Arratsaldeko 8: 02 an deitu zuen.

**Gertaera salatu edo txalotzeko : 943 75 13 04. Izen abizena beharrezkoa**

### ILARGIAREN ALDIAK

**Ilberria** — Martxoak 6 astelehena.

**Ilbera** — Martxoak 28 asteartea.

**Ilgora** — Martxoak 13 astelehena.

**Ilbetea** — Martxoak 21asteartea.

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Pil Pileanek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.

**DEITTU**
**943 75 13 04**
**ETA UTZI ZURE MEZUA MARTXOAREN 19A BAINO LEHEN.**

### JAIOTAKOAK

Íria Martínez Rubio
*Abenduaren 27an*
Garazi Catalán Arenaza
*Abenduaren 29an*
Iñaki Recio Irusta
*Otsailaren 1ean*

### HILDAKOAK

- Maria Luisa Bolunburu Ganuza
- Mercedes Galarraga Aldai
- Moises Arizaga Maiztegi
- Antonio Arruabarrena Igartua
- Esperanza Eguren Atxa
- Ramón Motoso López
- Seberi Alberdi Arregi
- Fernando Yanguas Carroza
- José Aranbarri Laskurain
- Josefa Txurruka Aizpiri

### EZKONDUAK

·Ane Miren Ansola
Asier Laskurain
*Otsailaren 5ean*

### MEZEN ORDUTEGIA

**Astegunetan:** Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)
**Larunbatetan:** Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)
**Igande eta jai egunetan:** Goizeko 9:00tan (Gaztelaniaz), 11:00tan (umeentzat euskeraz) eta 12:30tan (elebiduna)




***Zuen hildakoen eskela, eskerrona edo urteurrena jarri nahi baduzu, oraintxe duzu aukera Pil Pileanen.***
943 75 13 04

**SALAZAR**
Altzariak
Altzariak-Apaindurak
Sukaldeak- Elektratresnak
Errekalde 7
20590 Soraluze
Telefonoa/faxa:943752388

ETXEKIT
Sukalde eta bainugelak
Luis F. Beristain
Arrilaga kalea zb/g.
Elgoibar .943744347

# AJENDA

+ **Koldo Zuazoren** *"Deba Ibarreko Euskeria"* **liburuaren aurkezpena.** Martxoaren 17an arratsaldeko 19:00etan Baltegietako gela urdinean.

+ Sagardotegira irteera Martxoaren 10ean Pil Pilean aldizkariarekin

## *IÑAUTERIETAKO EGITARAUA*

### *MARTXOAK 4, LARUNBATA*

***Eguerdiko 12 etaik 2etara***
*Umeentzat jolasak "beti Prest" taldearekin Plaza Zaharrean eta Berrixan*
***Arratsaldeko 5etan***
*URRATS herriko dantza taldearen saioa Plaza Zaharrean.*
***Arratsaldeko 6etan***
*Buruhaundiak*
***Arratsaldeko 6etatik 9etara***
*ORIAKO txaranga kalez-kale*
***Gaueko 11etan***
*LORELEI taldearen kontzertua Plaza Zaharrean*

### *MARTXOAK 7, ASTEARTEA*

***Arratsaldeko 4etan***
*MOZORRO LEHIAKETA Plaza Zaharrean 14 urtetik beherakoentzat, konpartsa mailan. Izenak Udaletxean emango dira martxoaren 6a baino lehen.*
***Arratsaldeko 6etan***
*Buruhaundiak*
***Arratsaldeko 7etatik 10 etara***
*TXALAPARTA txaranga kalez-kale*
***Gaueko 10etatik 2etara***
*Dantzaldia Plaza Zaharrean IRAILERAKO 6 taldearekin. Gaueko 12etan PLAY-BACK LEHIAKETA 15 urtetik gorakoentzat.*

# GAZTELUPEKO HOTSAK

Tlf 943753016 Faxa 943750139 94.p.k. Soraluze 20590




## Joseba Tapia
**QUÉBEC kantari**
Pascal Gaigne
Itxaro Borda
Koldo Izagirre




## Lorelei
**Tatuatu zenidan zerua**
Asier Serrano eta
Mikel Gorosabel "Norton"
Beraien bigarren lana




## Mikel Urdangarin
**Haitzetan**
Kantari bizkaitarraren
lehen grabazioa




## Ene Bada
**Durangaldeko boskote Gaztea**
Triki-rock *Ai ene!!!!*




## Mikel Markez
**Dena hankaz gora**
Eta Pako Aristirekin
**Tribuaren hitz galduak**




## Petti
**Amets bat**
Euskal Yarragh
Folk-blues
Berako harrobia




## Mikel Telleria
**Deklarazioa**
Pop-rockaren hildotik




## Piztiak
**Zero**
Talde rokanroleroaren
diskorik rokanroleroena
Bideoklipa PCrako




## Bide Ertzean
**Zure Minari**
Ubeda anaien proiektoa
Kaki Arkarazok ekoiztua



## Su Ta Gar
**1987-89**
Hasierako maketen
kantuak
Jo Ta Ke klipa PCrako


**Aldizkari honek Soraluzeko Udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko**